USKURTZ-GAYAK

GOIZPARKI EDO EBANGELIJUA

EPALA—18'KUA.—BEROGEIKAROKO 4'G. IGANDIA.

Eta jezari ziran gixonezkorik bost mila-samar. Ta Josu'k ogijak artu ebazan, eta eskar-eginda, jezarita egozanai banatu eutsezan: bata beronelan arañetatik nai aña bakotxari.

Aldi atan: Josu Tiberiades-itxasua deritxon Galilai'ko itxasuaren beste aldera juan zan.

Eta bere jarai gixozte andija joyan, gexorik egozanetzaz egiten ebazan alatz edo mirarijak ikusten ebezalako.

Ta Josu mendira igon zan; eta bertan jezari zan bere ikaslarijakin.

Eta lastertxe zan Pascha *(pascua)* deritxon judaren jai nagusija.

Josu'k, ba, begijak zabaldu ebazan, eta bere jarai gixozte-gixoztia etorala ikusita, Pilipa'ri esan eutson: ¿Nundik ogijak erosiko doguz onek jateko?

Ta au esan eban Pilipa zirikatzeko, berak zer egingo eban bai-ekijan-eta.

Pilipa'k erantzun eutson: berеun amarekoz erositako ogijak be, eztira naiko bakotxak otapura artuteko.

Ikaslaririk batek, Ander, Simon Kepa'ren anayak, diñotso: emen mutila dok, bost tremes (garagar-ogija) ta arain bi yaukazana; baña au ¿zer ete-dok ainbestientzako?

Josu'k, ba, esan eban: gixonai jezarteko esayezube. Ta bedar asko zan leku atan. Eta jezari ziran gixonezkorik bost anei-samar.

Ta Josu'k ogijak artu ebazan, eta eskar-eginda, jezarita egozanai banatu eutsezan: bata beronelan arañetatik nai aña bakotxari.

Ta asetu ziranian, ikaslarijai esan eutsen: oin, ba, ondakiñak batu egixubez, galdu eztafezantzat.

Eta batu ebezan; eta jan ebenai larегi ixan yakenaz amabi otzarakada tremes-ondakiñak bete ebezan.

Eta gixon arek Josu'k alatz edo mirarija egin ebala ikusirik, esaten eben: Auxe, bai, benetan dala lurera etoriko dan iragarlia.

Baña Josu'k, bera artu ta bakaldun *(erege)* egiteko etoriko zirala igaririk, bariro mendira igesi-egin eban bakarik.

Astakilo ta Ipurdiere'k batu artu dabe.
—¿Zelan egon da ura?—itanduten dautso batak bestiari.
—Nire emaztia letxe: asare bixiz ta mingoitz-mingobxa.

DEUN-JOSEBA'REN MARGERKI BATEN AURIAN

Atsegin aundiyan Deun-Joseba ageri zera,
zeure lan-tokiyan Jainko Aurari maitez begira;
zaude eserita,
esku biyekin Aur maitiari bigun eldurik,
daukazularik arotz-mayan txiribi-gañian zutiñik,
iri-bareka,
Bere eskutxu zoragariakin zuri arpegia igurtzirik,
ta zu zori-deunez dena inguraturik
oyek muxuka.

—

Txit eztitsu Joseba diozu Josu'ri begiratzen,
maitari diru Bere begiyak Maitiak zugan ipintzen;
¡ai zein gozoki,
begiratzun oyek zure biotza gorituko zuten,
ta Jaun-maitasunean goi-malaraño jasoko zizuten!
¡ai zein samurki,
begiratzun oyek zure gogoa zuten poztuko,
zori-deunaren oxin bigunian maitare zuten sartuko!
¡ai zein gozoki!

—

Josu'ren aita-ordia zeran Joseba, nik ere,
Aur oren begiratzun oyek iritxi nai nituzke;
bañan ez-dakit,
zuk bezela Josu-gana nere begiyak jasotzen,
orengatik zuri bezela ez-dit neri begiratzen;
ai gogotik,
dizut eskatzen nere abek ditzatzula zuzendu,
zureak bezela Maitiarenakin direzen arkitu.
maite maiterik.

Tene.

Astakilo ta Ipurdiere'k:
—Nik nire emaztia ezagutu neban ezkondu baño iru ilabete lenago.
—Nik, bariz, eneban emaztia ezagutu ezkondu ta iru ilabete igazi (pasau) arte.

✦ ✦ ✦

—Ez orenbeste makilada emon zaldi gixaxuari.
—¿Emon ez? ¿Zer egingo dot, bar Onek tarantarik (automobilik) ikusten daunian, uste-ixaten dau burdijak be, eurenez, zakti-barik, ibili leitekezala, ta eztau gura burdija eruan.

UNEAK

A

Ilun-iluna darkit
ludi gustia,
laño beltz-beltza dator
goitik mendira.

Mendiko basotatik
beruntz dijoa,
lilietan utziaz
negar-malkoak.

Lili polita neukan
zutik leyoan...
legortua utzi zidan
laño gaiztuak.

Gogora zenbat aldiz
datoz odeyak,
Azila-gau-arpegi
lakua beltzak.

Ta gogai polit, amets
ezti-bigunak
antxen uzten diruzte
il ta izoztuak.

Argain'dar Eneko.